



**2022KO UZTAILAREN 21EKO  
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko uztailaren hogeita batean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren eguneko gai zerrendako gaiak jorratzeari ekin zaio.

**I.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 4 ZK. KREDITU ALDAKETA.-**

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du. Proposatzen diren kreditu aldaketak urte bukaera arteko hilerriko lanak kanpoko enpresa baten bidez egiteko partida jartzea; ikastolako estalian saskibaloiko saskiak jartzea eta eguzki panelak jartzeko partidaren kreditu gehiago jartzean datzate.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du, nahiz eta hilerriko lanak udalaren beraren langileekin egitearen aldekoak diren eta saskibaloiko saskiak jartzearena saskibaloiak herrian izango duen etorkizunaren azterketarekin lotuta joan beharko lukeela pentsatu, ontzat ematen dutela kreditu aldaketa eta alde bozkatuko dutela.

Hau guztia honela, eta gaiaz eztabaidatu ondoren, gaia bozketan jarri da, eta udalak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordio hauek hartu ditu:

**Lehenik.-** Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 4 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

## KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	6.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	60.500,00 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>66.500,00 €</b>

## FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	66.500,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>66.500,00 €</b>

**Bigarren.**- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

### II.- UDALSAREA 2030 HITZARMENA.-

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saitetik, IHOBetik, Tokiko Ekintza Jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin Bultzatzeko -Udalsarea 2030, Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarearen Berriztapena- Akordioaren Aldeko Abxikimendurako gonbita jaso da.

Atxekimendurako testuak honela dio:

Lazkaokoko Udalak NBEk promulgatutako 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren Helburuak modu aktiboan betetzen laguntzeko konpromisoa hartzen du, bere udal politika eta kudeaketa egokitzearen eta eraldatzearen bitartez.

Konpromiso hau gauzatzeko modua da tokiko gobernantza-eredu integral eta adimendun bat ezartzea, jasangarritasun globalaren aldeko hobekuntza etengabeko prozesu gradual baten bitartez, Tokiko 2030 Agendara iristeko xedez.

Eta ahalegin horretan, Udalak azpimarratzen ditu Udalsarea 2030en partaide izatearen onurak, horren helburua tokiko ekintza jasangarria sustatzea baita, Tokiko 2030 Agendaren esparruan, prozesu horiek teknikoki sostengatzeaz batera.

Alkateak esan du atxikitzerakoan ordezkari politiko bat eta ordezkari tekniko bat adierazi behar direla eta ordezkari politiko bezala, hirigintza batzordeko buru beraz denez, bera izango litzatekela eta ordezkari teknikoa udal aparejadorea.



LAZKAOKO  
UDALA

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) beraien ere ordezkaria izateko beraien nahia azaldu du.

Alkateak erantzun dio jasota gelditzen dela.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta udalak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin "Tokiko Ekintza Jasangarria Eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin Bultzatzeko -Udalsarea 2030, Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen Berriztapena- Akordioari" atxikimendua onartu du, hortik eratortzen diren konpromisoak bereganatuz.

### III.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO  
UDALA